

51 ZENBAKIA. 2022

ELKARRIZKETA | Susana Azpilikueta. Mondragon Unibertsitateko Komunikazio arduraduna

**“Mondragon Unibertsitatearen  
esentzia komunikatzen asmatu  
behar dugu”**

# VITALDENT



Promoción exclusiva Mondragon Unibertsitatea

**Con tu tratamiento  
blanqueamiento dental gratis\***

ARRASATE-MONDRAGÓN  
BEASAIN  
BARAKALDO  
BASURI  
BERMEO  
BILBAO

DURANGO  
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN  
EIBAR  
GALDAKAO  
GETXO  
IRUN

PORTUGALETE  
ERRETERIA  
SANTURTZI  
VITORIA-GASTEIZ

RPS: 10-21. Consulta condiciones en clínica. Tratamientos bajo prescripción médica.

## Unibertsitatearen esentzia komunikatu

Susana Azpilikueta Mondragon Unibertsitateko Komunikazio arduraduna da duela 17 urtetatik. Erakundearen ibilbidean, bertatik bertara bizi izan du honen nondik norakoak. Unibertsitatearen 25. urteurrenean, harekin batera komunikazioaren garapena aztertu dugu, izan duen bilakaeran fokua jarritz.



## AURKIBIDEA

03	Editoriala
04	Berriak
10	Erreportajea
13	Iritzia
14	Elkarrizketa
16	Unibertsitatea & enpresa
20	Komunitatea
23	Agenda

## Ikuspegi globala lantzen

2021-2022 ikasturtean myGADEDUALeko ikasleak berriz munduan zehar bidaiatzen aritu dira, errealitate sozial eta profesional anitzak ezagutzuz. Lehen mailako ikasleak Belgikan izan ditugu, bigarren mailakoak Txekia, Belgika eta Portugalen, eta hirugarrenekoak Costa Rica, México, Irlanda, New York eta Indian. Gainera, datorren ikasturtean aurrera laugarren kursoan bakarkako nazioarteko esperientzia bat bizitzea tokatuko zaie, eta Gradu Bukaerako Lana ere bertan garatzeko aukera zabalduko da. Enpresagintza Fakultateak bertako ikasleei pentsamolde global bat garatzeko aukera eskaintze die, eta horretarako nazioarteko bidaiak tresna aberasgarri bilakatzen dira.



muniversitas aldizkariaren 51. zenbakia OSOA ikus dezakezu gure webgunean.



muniversitas aldizkariaren 51. zenbakia EUSKARAZ ikus dezakezu gure webgunean.



Puedes acceder a la revista muniversitas número 51 en CASTELLANO en nuestra web.

# URTEURREN BOROBILA

Mondragon Unibertsitatea 1997an sortu zen, Goi Eskola Politeknikoa, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea eta Enpresagintza Fakultatea marka berri bateanpean elakrtzean. Unibertsitatearen ibilbidea 2.200 ikaslerekin hasi zen, hiru fakultetetan banatuta, eta hasieran Ignacio Lakunza izan zen errektore, ordura arte Goi Eskola Politeknikoko zuzendari nagusia. Lacunzaren atzetik Javier Retegi (1999 eta 2002 artean), Inaxio Oliveri (2002-2007), Iosu Zabala (2007-2014) eta Vicente Atxa (errektorea 2015etik) etorri ziren. 2022an, unibertsitateak bere lehen mende laurdena ospatzen duen honetan, bost errektoreak elkartu ditugu, efemeride honek iradokitzen diena gurekin parteka dezaten.

Izan ere, Mondragon Unibertsitateak ez ditu erronka gutxi izan. Are gehiago, sorkuntza bera erronka bat izan zen berez, bai kanpora zein barrura begira. Gobernuarekin negoziatzea, lizentziak eskatzea edo barne-

kudeaketa, hiru kooperatiba bigarren mailako kooperatiba batean ahalik eta modurik egokienean batzeko. Horri modurik egokienean erantzutea funtsezkoa izan zen sustrai indartsuak egituratzeko, eta gaur egun ere hazten ari den erakunde bat horren gainean garatu da.

Gaur egun, erantzun beharreko erronkak aldatu egin dira, baina unibertsitateak ez ditu erronka horiek aurrera ateratzeko grinik galdu. Enpresarekin dagoen harremana, nazioartekotzea, erakundearen digitalizazioa edo titulazio berrien sorrera izan dira topaketa honetan hizpide izan diren gaietako batzuk, gaurkotatzen handiko gaiak.

Duela 25 urte hiru fakultate biderkatzeko batu ziren, eta bidean laugarren bat gehitu dute abenturara, Basque Culinary Center. Orduetik, Mondragon Unibertsitateak gora egin du ikasle kopuruan, titulazio propioetan, campusetan eta eraikinetan. Debagoienean abentura gisa hasi zena, gaur egun, sendotutako proiektu bat da, Euskal Herri osora hedatua eta bai estatu mailan, bai nazioartean laborategiak dituen. Abentura zoragarri honek hazten jarraitzen du, eta dagoeneko hemen dagoen etorkizuna du begiz jota, gogoz eta ilusioz aurre egiteko etorkizun bat.

*Duela 25 urte hiru fakultate biderkatzeko batu ziren, eta bidean laugarren bat gehitu dute abenturara, Basque Culinary Center.*



Mygadeko hirugarren mailako ikasleak Costa Rican izandako nazioarteko esperientzian.

## Hazteko bidaiatu

MYGADE DUAL GRADUKO LEHEN HIRU IKASTURTETAKO IKASLEEK NAZIOARTEKO ESPERIENTZIA EZBERDINAK BIZI IZAN DITUZTE, PENTSAMOLDE GLOBAL BAT GARATZEKO HELBURUAREKIN

**Enpresagintza Fakultatea** | MyGADE DUALeko ikasleek toki ezberdinak bisitatu dituzte 2021-2022 ikasturtean, hainbat errealitate sozial eta profesional ezagutzeko eta, horrela, beraien pentsamolde globalaren garapena lantzeko.

Lehen mailako ikasleak Belgikara joan dira, eta bertan, beste errealitate kultural eta enpresarial batekin lehen harremana izateaz gain, Europako Parlamentura bisita bat egiteko aukera izan dute, egungo Europar Batasunaren sorrera eta bertako erabakigunea ezagutzeko.

Bestalde, bigarren mailako ikasleek Europako hainbat tokitara bidaiatu dute. Oñatiko campuseko taldea Pragan izan da, Irungoa Bruselan eta Bilboko Leiria-Portugalen. Horiek guztiek GJHetan sakondu dute, eta ikus ahal izan dute sektore eta herrialde ezberdinetako hainbat enpresa beraien estrategiak bateratzen ari direla iraunkortasunaren arloan ezarritako helburuak betetzeko.

### Mugak irekiz

Hirugarren mailako ikasleek hilabete bateko talde-esperientzia multikulturala izan dute, espezialitate desberdinekin lerrokatuta dauden toki anitzetan. Hauek izan dira, besteak beste bisitatutako herrialde eta unibertsitateak: Costa Rica, Mexiko, Irlanda, New York edo India.

Gainera, datorren ikasturtean, nazioarteko esperientzia indibiduala biziko dute atzerriko unibertsitate batean. Horrez gain, Gradu Amaierako Proiektua atzerrian garatzeko aukera izango dute.

## Nazioarteko esperientziak



myGADE graduaren lau urteetan zehar, ikasleek nazioarteko esperientziagarrantzietsu eta zurraragarriak bizitzeko aukera dute. Atzerrian asteak ematen dituzte enpresak bisitatzeko edota nazioarteko adituen aurkezpenetara joaten, egonaldi luzeagoak egiten dituzte helmugako proiektuak egiteko eta Europa, Asia, Amerika eta Australiako unibertsitateetan egonaldi akademikoak ere egiten dituzte. Horrez gain, beraien Gradu Amaierako Proiektua nazioarteko enpresa batean egiteko aukera ere badute. myGADE ikasturteetan zehar garatzen ari den formula bat da, *mindset* globalarekin edo ikasleen garapen globalarekin lotutako gaitasunak eskuratzen joateko.

# Gazteei zuzendutako Komunikazko Campusa

UZTAILAREN 4TIK 15ERA BI TXANDATAN ANTOLATUKO DA BATXILERGOKO LEHEN MAILAKO GAZTEEI ZUZENDUTAKO CAMPUSA. BIGARREN KOMUNIKAZIO CAMPUSA EGINGO DUTE ARETXABALETAKO CAMPUSEAN



14 eta 16 urte bitarteko gazteek hartu ahal izango dute parte Komunikazio Campusean.

## Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Komunikazio Campusa antolatu dute, bigarren aldiz, Goiena Komunikazio Taldeak eta Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio graduak. Astebete iraungo du eta goizez egingo da, Mondragon Unibertsitateak Aretxabaletan duen Komunikazio Campusean. Udalekuak daude zuzenduta DBH-4ko eta batxilergoko lehen mailako gazteentzat. Bi txanda egingo dira, asteleheneretik ostiralera: lehena, uztailearen 4etik 8ra; eta bigarrena, 11tik 15era. Biak ala biak, 09:00etatik 13:30era.

## Zuzeneko podcast saioa tb platotik

Udalekuen helburua da gazteak modu praktiko eta dibertigarrian hurbiltzea komunikazioaren mundura. Horretarako, besteak beste, honako gai hauek jorratuko dituzte: kamera aurrean nola jarri, fotokazetaritza, podcastak nola egin, sare sozialen kudeaketa... Aurten, gainera, arreta berezia jarriko da telebistako platotik egindako

zuzeneko podcast saioetan. Ariketak egiteko, Mondragon Unibertsitateko Aretxabaletako Campuseko baliabideak erabiliko dira: telebista-platoa, ordenagailuak eta beharrezko izango duten bestelako materiala. Horretaz gain, Goienaren Arrasateko egoitza –erredakzioa, telebistako platoa eta irratia– bisitatuko dute egun batean.

Mondragon Unibertsitateko irakasleek eta Goienako profesionalek hartuko dute parte Komunikazio Campusean. Era berean, landuko diren gaietan ezagunak direnek eta eskarmentua dutenek emango dituzte master-eskolak: Ainhoa Vitoriak, komunikatzaile eta Gazteako irati esatariak; Alex Padillak, sare sozialetan aditu eta Tabakalera eta Gazteako komunikazio teknikariak; eta Goiena Komunikazio Taldeko Xabier Urzelaik, mojo edo eskuko telefono adimendunekin ekoiztutako ikus-entzunezkoen edukietan adituak.

## Ethos Guggenheim-en ikusgai

DISEINU BERRIKUNTZA ZENTROKO LANTALDE BATEK CAF ENPRESAREKIN GARATUTAKO PROIEKTUA BILBOKO MUSEOAN IKUSGAI EGINGO DA IRAILA BITARTEAN



Ethos proiektuaren prototipoa.

**Goi Eskola Politeknikoa** | 2100 urterako tren adimendu bat da Ethos, etorkizuneko erronkei erantzunez diseinatu dena. Proiektu hau Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzako Graduako Nerea Murillo ikasleak eta bere tutore den Maitane Mazmelak eraman dute aurrera, beste irakasle batzuen laguntza eta CAF enpresaren partaidetzarekin batera. Ethos tren berritzaileak *machine learning*-a erabiltzen du bezeroari esperientzia pertsonalizatuak eskaintzeko eta bidaiarien fluxu eraginkorra lortzen du mugikortasun-eskema propio baten bitartez. Bidaiariak geltokira eramateko, lurrez, airez zein uraren gainera mugitzen diren modulu autonomoak diseinatu dira, eta hauek tren geltokira iritsitakoan, distantzia luzeko trenaren bagoietan txertatzen dira. Horrez gain, erabiltzaileen esperientzia hobetze aldera, trenak interakziorako elkargune bat du, erabiltzaileei bidaia esperientzia hobetzera bideratua.

## Guggenheim museoan ikusgai

Ethos proiektua apiriletik irailaren 18a bitartean Bilboko Guggenheim museoan izango den *Motion, Autos, Art, Architecture* erakusketan ikusgai egingo da. Erakusketa hau Norman Foster arkitekto famatuak zuzendu du, eta bertan mugikortasuna eta garraioaren bilakaera aztertzen da. Norman Foster Fundazioak mundu osoko 15 diseinu eta ingeniari eskola hautatu ditu erakusketan parte hartzeko, eta Mondragon Unibertsitatea horietako bat izan da. Diseinu Berrikuntza Zentroko lantaldeak ingurune inmertsibo bat prestatu du bidaiarien esperientzia gertuagotik bizitzeko aukera eskainiz, beraz erakusketa bisitatzea hurbiltzen den edozeinek esperientzia ahaztezina bizi ahal izango du. Zorionak lan taldeari egindako lan bikainagatik!

# Teknologiak jasangarritasunaren bidean

PROZESU INDUSTRIALEKO EKOTEKNOLOGIA INGENIARITZA GRADUKO IKASLEAK EIT MANUFACTURING KONSORZIOKO TEACHING FACTORIES LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DABILTZA.



Teaching Factories Competition lehiaketaren kartela.

**Goi Eskola Politeknikoa** | *Teaching Factories Competition on Green Manufacturing* EIT Manufacturing kontsorzioak sustatutako lehiaketa da, unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzendua dagoena. Ber-

tan, 10 heziketa zentro ezberdinetako 14 talde ari dira parte hartzen, eta horietako bi Prozesu Industrialetako Ekoteknologia Ingeniaritza Graduako ikasleek osatutako taldeak dira, bakoitza 5 ikaslez osatua.

Parte hartzaileek apirila eta ekaina bitartean 6 enpresek planteatutako erronkei aurre egin behar izan diete, eta zehazki Goi Eskola Politeknikoko ordezkariak AVIO Aero eta P&G enpresek planteatutakoei erantzun behar izan diete.

AVIO Aerok aurkeztutako erronkak jardun industrialean fabrikazio ekologikoa aplikatzeko soluzioak eskatzen ditu, eta P&G enpresak, aldiz, adimen artifizialaren erabilera potentziala duten sistemen kontsumoari buruz bildutako datuak automatikoki neurtu eta aztertzeko soluzio eskuragarri garapena.

Lehiaketa ia 2022 urte osoan zehar luzatuko da, eta partaideek irailean jakingo dute finalera sailkatu ote diren.

## Etorkizun jasangarriari begira

Prozesu Industrialetako Ekoteknologia Ingeniaritza Gradua erronka teknologiko eta industrial jasangarriekin modu estuan lotzen da, eta honen adierazle garbia da Europa mailako lehiaketa honetan parte hartzea. Horrez gain, Mondragon Unibertsitateak eskaintzen duen kalitatezko hezkuntzaren baitan ekimen hauei esker ikasleek enpresa erreferenteen erronkak gertutik ezagutzeko aukera dute. Zortetik onena opa dizuegu!

## MONDRAGON esperientzia kooperatiboa bertatik bertara ezagutu dute nazioarteko ikasleek

JATORRI EZBERDINEKO KOOPERATIBISMOAN ETA KUDEAKETA SOZIOENPRESARIALEAN UNIBERTSITATE MASTERREKO IKASLEEK BISITA EGIN DUTE



Atzerriko ikasleek Eskoriatzako campusean jaso zuten harrera.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak** | Martxoaren 21etik apirilaren 1era, MONDRAGON esperientzia kooperatiboa ezagutzeko parada izango dute Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterreko ikasleek. Nazioarteko master hau online eskaintzen da, baina, ikasleek aukera dute, formazioa osagarri moduan, euskal kooperatibismoa gertutik ezagutzeko. Lehen bisita honetan, beste batzuen artean, El Salvador, Italia, Katalunia,

Kolonbia eta Mauritaniatik etorritako lagunek hartuko dute parte.

### Arlo akademikoan sakontzen

Kooperatiba eta erakundeetara egingo dituzten bisita ugaritik aparte, arlo akademikoan ere sakontzeko baliatuko dute egonaldia. Hala, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Eskoriatzako campusean, hainbat formazio saiotan parte hartuko dute eta Master Bukaerako Lanetan aurreratzeko, tutoretzak egingo dituzte.

## Fabrika proiektuan protagonista

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA ENPRESEN KULTURA-ERALDAKETARAKO ZENTROAREKIN LANKIDETZAN ARI DA, BERE PROGRAMAK EMATEKO BIDERATZAILEAK ESKAINI ETA I+G UNITATEA INDARTZEKO ASMOAREKIN



José Miguel Ayerza eta Lander Beloki hitzarmena sinatzen.

**Enpresagintza Fakultatea** | José Miguel Ayerza, Fabrika Fundazioko zuzendari nagusiak, eta Lander Beloki, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko dekanok, esparru-hitzarmen bat sinatu dute bi aldeak Fabrika izeneko Enpresen Kultura Eraldaketarako Errendimendu Handiko Zentroa garatzen lankidetzan aritzeko. Horretarako, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko profesionalek emango dituzte programak ezberdinak bertan, beste bideratzaile batzuekin batera. Mondragon Unibertsitateak ere bere ezagutza eskainiko dio zentroko I+G unitateari.

### Enpresa arloan erreferentzia

Fabrika enpresen kultura-erlaketara bideratutako errendimendu handiko lehen zentroa da, eta konfiantzan oinarritutako kultura garatzea du helburu. Dagoeneko hau garatuta duten enpresak askoz eraginkorragoak dira (emaitzak hobetzen dituzte), afektiboagoak (pertsonek ongizatea handitzen dute) eta moldagarriagoak (ingurunearen aldaketei hobeto erantzuten diete). Fabrika dagoeneko Gipuzkoako 120 enpresa baino gehiagorekin lanean ari da, eta eraikin berriaren inaugurazioa, 3.450 metroko lursailean eraiki dena, 2023ko urtarrilaren 13rako aurreikusita dago.

## Titulazio berriak Goi Eskola Politeknikoan

2022-2023 IKASTURTEA MARTXAN JARTZEAREKIN BATERA BI MASTER ETA GRADU BERRI BATEKIN OSATUKO DU BERE ESKAINTZA AKADEMIKOA

**Goi Eskola Politeknikoa** | 2022-2023 ikasturtean Goi Eskola Politeknikoaren eskaintza akademikoak hiru titulazio berriekin osatuko da.

**Industriara Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoa gradua:** Ikasle goari Matematika, Fisika aurreratu eta Programazioan oinarri sendo bat garatzeko aukera emango dio, gero ikasitako Ingeniaritzako esparru ezberdinetara aplikatu ahal izateko; robotika edo adimen artifizialean besteak beste. Bilboko campusean eskainiko da ingeniari berri hau (Bilbao AS Fabriken zehazki), eta azken belaunaldiko tresna konputazionalen bidez lagundutako ikuspegi multifisikoak erabiliz industriaren garapen eta modelizazioan sakondu ahal izatea izango da titulazioaren helburua.

**Energia Sistema Adimendunetan unibertsitate masterra:** Galarretan kokatzen den Orona-Ideo campusean eskainiko da 2022-2023 ikasturtean aurrera, eta bertan energia sistema desberdinei buruzko ezagutza sakonduko da: adibidez energia komunitateak, ibilgailu elektrikoak, industria elektro-intentsiboak, parke eolikoak edo fotovoltaiakoak.

**Operazio Logistiko eta Produktiboen zuzendaritza unibertsitate masterra:** Arrasateko campusean jarriko da martxan 2022ko irailetik aurrera, eta testuinguru ekonomiko berriaren enpresek dituzten funtsezko erronkei erantzuteko bideratuta egongo da; ekoizpen-baliabideen efizientzia ahalik eta handiena lortzea eta komunikazio teknologia berrien sarrera.

## “Harrera egiten duen janaria”

**Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea** | Basque Culinary Center-en Nazioarteko Kontseilua, munduko sukaldari esanguratsuenetako batzuk osatuta, ekainaren 19tik 21era Gironan ‘Harrera egiten duen janaria’ izenpean egin zen Gastronomiaren Summitaren barruan batu zen munduko sukaldari garrantzitsu eta eraginkorren artean.

Topaketaren anfitrioiak Joan Roca izan zen, Basque Culinary Centerreko Nazioarteko Kontseiluko presidentea eta El Celler de Can Roca-ko chef, hiru Michelin izar dituen. Besteak beste, summit-ak mundu mailako lehen mailako sukaldariak batu zituen: Gaston Acurio (Peru), Dominique Crenn (Frantzia/AEB), Enrique Olvera (Mexiko), Manu Buffara (Brasil), Michel Bras (Frantzia), Mauro Colagreco (Argentina/Frantzia), Trine Hahnemann (Danimarka), Josh Niland (Australia), Pia Leon (Argentina

(Pru), Narda Lepes (Argentina) eta Elena Reygadas (Mexiko).

### Topaketei berriro ekinez

Bi urteko pandemiaren ondoren, non ezin izan den Kontseiluaren aurrez aurreko topaketarik egin, Basque Culinary Center indartsu itzuli da goi mailako hausnarketa goi bilera batekin, sektorearen erronkei eta aukerei ikuspegi sortzaile batetik heltzeko.

Krisiak markatutako baina apustu egitera eta ekitera ausartzen direnentzat aukeraz betetako une batean, ‘Harrera egiten duen janaria’ Summit-ak gastronomia harrera-gune dinamiko gisa ikusteko gakoak partekatu nahi izan ditu: joerena, eta sormena eta berrikuntza ulertzeko modua.



Cartel anunciador del evento.

## Energia kontsumoa murrizteko neurriak

2020KO IRAILA ETA 2021EKO ABENDUA BITARTEAN ARRASATEKO CAMPUSEAN IZANDAKO ELEKTRIZITATE ETA GASAREN KONTSUMO TENDENTZIAREN AZTERKETA EGIN ONDOREN KOORDINAZIO OROKORRA ETA INGURUGIRO TALDEA NEURRIAK EZARTZEN ARITU DIRA ELKARLANEAN



Iturripen neurri ezberdinak aplikatzen hasi dira.

**Goi Eskola Politeknikoa** | Jasagarritasuna helburu estrategikoa da Goi Eskola Politeknikoarentzat, eta horregatik eraikin propioetan energia kontsumoa murrizteko neurriak hartzen ari dira.

Elektrizitatearen kontsumoa 2020ko irailetik 2022ko urtarrilera %4.08 igo zen Arrasateko campusean (COVID-aren zabaltzea saihesteko klimatizazio baldintzen ondorioz), eta tarte honetan prezioak %180 egin zuengora. Kontsumoa murrizteko helburuz fakultateko Koordinazio Orokorra eta Ingurugiro Taldea elkarlanean aritu dira, eta besteak beste hartutako neurri batzuen artean hauek ditugu: LED argien ordezkatzea, presentzia-detektatzaileak ezartzea, kanpoaldeko argiteriaren ordutegi aldaketa edo ur hotzeko iturriak zein lokaletako berogailuak jenderik ez dagoen orduetan itzaltzea.

### Kolektiboaren kontzientzia piztu

Koordinazio Orokorra eta Ingurugiro Taldeak komunikazio ariketa garrantzitsua egin du azken hilabeteetan mezuak langile eta ikasle guztiei helarazteko. Guztion artean ikasturte osoko energia kontsumoa ia zkoarekin alderatuta %5ean jaisteko helburua ezarri da, eta horretarako zenbait praktika on partekatu dira kolektiboarekin. Erantzuna oso positiboa izaten ari da kanpainaren lehen hilabeteetan, izan ere, 2022ko urtarriletik apirilera bitartean energiaren kontsumoa %4a murriztea lortu da eta ikasturtea amaitu bitartean beste %5 jeistea da helburua. Bide ona hartu du Arrasateko campusa osatzen duen komunitateak beraz horrela jarrai dezala. Animo!

## Humanitate Digital Globalak graduko ikasleak Bruselan

IKASLEEK EGIN DITUZTE BISITA, WORKSHOP ETA LAN-BILERA UGARI BERTAN, TARTEAN, EUROPAR LEGEBILTZARREAN ELKARTU DIRA IZASKUN BILBAO (EAJ-PNV) ETA PERNANDO BARRENA (EH BILDU) EUSKAL ORDEZKARIEKIN.



Ikasle guztiak, Aitor Zuberogoitia eta Beñat Flores graduko koordinatzaileak eta Izaskun Bilbao eta Fernando Barrena europar legebiltzarkideak.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** | Maiatzaren 9tik 13ra, Bruselan egongo dira Humanitate Digital Globalak (HDG) graduko 2. mailako ikasleak. Ikasketa eta lan-bidaia honetan workshop, bisita eta bilera ugari egingo dituzte ikasleek. Esaterako, bisitatu dute Europar Legebiltzarra eta bildu dira bertako EAJ-PNVko Izaskun Bilbao eta EH Bilduko Fernando Barrena euskal ordezkariekin, gainera, parte hartu dute Europako Batzordeko Ulla Engelmann-en eta Erregioen Batzordeko Santiago Mondragonen hitzaldietan.

Europar Legebiltzarra ezagutzeaz gain, baliatuko dute lan-bidaia bertatik bertara ezagutzeko zenbait erakunde. Esaterako, bilduko dira BeCentral campus digitaleko ordezkariekin; erakunde horretan biltzen dira 60 ekintzaile baino gehiago eta beraien helburua da, besteak beste, startup-ak sustatzea eta gizartean eragitea. Ezagutuko dute Coopcity ekintzailetza soziala eta kooperatiboa sustatzen duen elkarte eta bilduko dira BeCircular ekonomia iraunkor zirkularerako trantsizioaz arduratzen den taldearekin.

## 25. urteurrena dela eta ONCE-ko kupoietan

**Mondragon Unibertsitatea** | Maiatzaren 23an zozketatu zen ONCEko kupoiak Mondragon Unibertsitatea eta honen 25. urteurrena izan zuen protagonista. Hain zuzen ere, ONCEren bost milioi kupoi banatu zen Estatu osoan, ONCEren 40. urteurrenaren ospakizunarekin bat eginez.

### Bost milioi kupoi banatuta Estatuan

Kupoiak Mondragon Unibertsitatearen 25. urteurrenako logoak eta 'Berrikuntza, kalitatea eta Konpromisoa' leloak ilustratu zuten.

ONCE erakundearen Euskal Herriko ordezkariak eta Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxak aurkeztu zuten bi erakundearen urteurrenaren gogora ekarri zituen kupoi berezia.



ONCEko eta Mondragon Unibertsitateko ordezkariak kupoiak erakusten.



# Berrikuntza Donostiako erdigunean

DANIMARKAKO BIG ARKITEKTURA ESTUDIOAK GOE ERAIKIN BERRIA DISEINATUKO DU GROS AUZOAN, SEKTORE GASTRONOMIKOAREN ETORKIZUNARI BEGIRATUKO DION GUNEA.

Gune berria ikerketa, berrikuntza, esperimentazio, ekintzailtza eta graduondoko prestakuntza jarduerak hartzeko erabiliko da.



Proyección del futuro 'Olatuen bidea'.

**Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea** | Danimarkako BIG (Bjarke Ingels Group) arkitektura estudioko 'Olatuen bidea' proposamenak irabazi du Donostiako GOE – Gastronomy Open Ecosystem eraikina eraikitzeko

lanak zuzentzeko Basque Culinary Centerrek deitutako nazioarteko lehiaketa. Gastronomía, talentua, zientzia, berrikuntza, ekintzailtza eta hiriaren arteko lotura sinbolizatzen duen espazioa.

Bigen presakeraikin tipologia berri bat proposatzen du, lurraldetik abiatuta ikerketa, berrikuntza eta ekintzailtza gastronomikoa sinbolizatzen dituen metafora bihurtzen dena, hirian errotuta dagoen espazio bat, bere erreferente eta tradizioz elikatzen dena.

Talentuaren, sorkuntzaren eta ezagutzaren arteko harremanak uztartuko dituen eraikina izango da, eta herritarren topagune bihurtu nahi du, bizitza sozialerako, kulturarako, ikerketarako eta gastronomiarako ingurune berriak eskainiz.

## Berrikuntzarako gune berria

Basque Culinary Centerreko Gastronomy Open Ecosystem Gros auzoan kokatutako da, orografia aprobetxatzen duen lur batean. Gainera, eraikinaren olatuak herritarrentzako terraza irekiak dira, eta eraikinaren barruan gertatzen dena kanpoaldearekin lotuko dute. Hiriarekiko elkarriketari eutsiko dion eraikina izango da, integratuta dagoen hiri-eremua indartzen duten espazioak eskainiz.

Gune berria ikerketa, berrikuntza, esperimentazio, ekintzailtza eta graduondoko prestakuntza jarduerak hartzeko erabiliko da gastronomiaren sektore zabalean, munduko talentu kontzentrazio paregabea sortuz. Joxe Mari Aizegak azpimarratu zuenez, "GOEk Basque Culinary Centerren etorkizuneko estrategia osatuko du, Gastronomía 360 ikuspegian finkatuta. Zentzu horretan, talentua, ikerketa, berrikuntza eta ekintzailtza uztartzen dituen espazio baten aldeko apustua egiten dugu, gastronomiaren mugak eta etorkizuna aztertuko dituen nazioarteko erreferente bihurtzeko helburuarekin".

## Talentuaren etorkizuna datuen kudeaketan eta analisisian



Publikoaren bertaratzeko arrakastatsua.

**Enpresagintza Fakultatea** | Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultateak hogeitahamar enpresa inguru bildu zituen jardunaldi bat antolatu zuen kudeaketa eta datuen analisisien alorrak etorkizun hurbilerako dituzten erronkak elkarbanatzeko helburuarekin. Sare honen asmoa zaintza aktiboa abian jartzea da, ingurunesoziolaboral berriaren talentuaren plangintza estrategikoan eragina duten faktoreak identifikatzeko.

### Una jornada participativa

Jardunaldia Bilbao As Fabriken egun zen 15:00etatik

16:40ora, eta Aitor Urzelai SPRIko zuzendari nagusiak inauguratu zuen. Bertan parte hartu zuten besteak beste Lander Beloki Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko dekanok, ekosistema kolaboratiboari buruzko hitzaldi bat eskainiz; Mikel Mesonero Fakultateko Talentu Kudeaketa koordinatzaileak, talentu junior eta seniorrak bultzatzearen garrantziaz hitz eginez, eta Eduardo Castellano Enpresa Sistemen Fakultateko Ikerketa eta Transferentzia koordinatzaileak, Enpresen Ekintzailtzearen arloko Enpresen arloko Enpresen Garapena bultzatzeari buruz aritu zena.

25 URTEURRENA

# Hazia zena lore sorta dugu gaur

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN 25. URTEURRENAREN BAITAN, IBILBIDE HONETAN ERREKTORE IZANDAKOAK ELKARTU DITUGU. IGNACIO LAKUNZAK, JAVIER RETEGIK, INAXIO OLIVERIK, IOSU ZABALAK ETA VICENTE ATXAK URTEETAN ZEHAR ERAKUNDEAK IZANDAKO GARAPENA ETA EGUNGO EGOERA AZTERTU DUTE

1997an Goi Eskola Politeknikoak, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Enpresagintza Fakultateak sortu zuten Mondragon Unibertsitatea. Hiru fakultatetan banatutako 2.200 ikaslerekin hasi zuen bere ibilbidea Unibertsitateak, eta hastapen haietan, Ignacio Lacunza aritu zen errektore lanetan, ordura arte Goi Eskola Politeknikoko zuzendari orokor zena. 1999ra arte luzatu zen Lacunzaren jarduna, eta ondoren etorri ziren Javier Retegi (1999 eta 2002 artean), Inaxio Oliveri (2002-2007), Iosu Zabala (2007-2014) eta Vicente Atxa (2015az geroztik errektore lanetan). Unibertsitateak mende laurdena bete duen honetan, urte hauen errepaso egiteko bost errektoreak elkartu ditugu, efemeride honek iradokitzen diena gurekin partekatu dezaten.

## Ospakizunerako beta

Mondragon Unibertsitateak 25 urtetan izan duen bilakaerak ospakizunerako zenbait arrazoi eman dituela bat datoz bost errektoreak, hastapenetan horrelakorik imajina ezina baizen. Hasierako uneak Ignacio Lacunzak bertatik bertara bizi izan zituen, eta bere hitzetan “momentu hartan non geunden ikusita gaur egun Unibertsitateak

duen posizionamendua izugarria da”. Martxan jarri zenetik, Mondragon Unibertsitatea eraldaketa jarraitu baten murgilduta aritu da, beti bikaintasuna jomuga izanik. Lacunzak azpimarratu du eraldaketa honen antzekorik ez dela beste unibertsitateetan ikusi, Mondragon Unibertsitateko bereizgarria izanik, “guztiz harro sentiarazten nauena”. Bere oinordeko izandako Javier Retegik harrotasunaz gain erakundearen ibilbideak gaur egun ere harritzen jarraitzen duela aitortu du, bereziki belaunaldi ezberdinetara egokitzeko izandako gaitasunagatik. Bere hitzetan, “gaur egungo Mondragon Unibertsitatea sustraisendoak dituen zuhaitz bat dugu enborra tinko izanik arrama berriak hazten zaizkiona”, etengabe errealitertera egokitzen jakinik.

Unibertsitatearen hastapenetan ere agente aktibo izan genuen Inaxio Oliveri, Mondragon Unibertsitatea sortzeko legea Eusko Jaurlaritzan aurkeztu bait zuen garai hartan Hezkuntza Sailburua zelarik. Hasieratik une hau bizi eta ondoren erakundearen parte izanak poztasun handia sortzen diola aitortzen du Oliveri, begirada atzera eramanez egindako bidea oso arrakastatsua izan delako. Era berean, bere ustez “gaur

egun ikusten dudan Unibertsitatea gizartearen aldaketak aurkezten dituen erronkei aurre egiteko prest dago, eta horrek itxaropentsu sentiarazten nau”.

Urteetan zehar izandako garapenak aitortza merezi du, ez bairik gabe, baina Iosu Zabalak gaur egungo ikuspegitik aztertu nahi izan du 25. urteurren hau. Unibertsitatea gaur egun errealitate batzateak duengarrantzia ukazinean jarri nahi izan du fokua, eta Mondragon Unibertsitateak duen izaera propioa nabarmentzea beharrezkoa dela adierazi du: “Batuetan ez gara konturatzen zein desberdinak garen kanpotik datorren jendearen harridura sumatu arte. Gauza bitxi eta zoragarri bat dugu esku artean, harro egoteko modukoa dena”.



**Mondragon Unibertsitateak 25 urtetan izan duen bilakaerak ospakizunerako zenbait arrazoi eman dituela bat datoz bost errektoreak.**

## Hasieratik estilo propioa

Urte hauetan egindako ibilbideari dagokionez, zerbait izan bada Mondragon Unibertsitatearen bereizgarri, bere hezkuntza eredu propioa izan da. Javier Retegi errektore zela jarri zen martxan Mendeberrri hezkuntza eredu, proiektuen bitartez lan egitea planteatzen zuena, irakaslea paper ebaluatzailetik atera eta laguntzaile bezala kokatuz eta eduki tekniko ez gain, enpresek horrenbeste eskatutako zeharkako kompetentziengarapena, irakaskuntza prozesu berean txertatu zuena. Honi jarraiki, Vicente Atxak nabarmendu du Mendeberrri hezkuntza ereduak beste abiadura bat eman ziola hezkuntza berrikuntzari, horrezkero hezkuntza sistemak liderrak bihurtuz. Vicente Atxa errektore dela jarri da martxan Mendeberrri 2025 hezkuntza eredu, Mendeberrriren gaur egungo gizarterako eguneraketa.

Beste bereizgarri bat izan da hasieratik, Unibertsitateak



1997 URTEA

Mondragon Unibertsitatea markaren sorrera



HEZKUNTZA EREDU PROPIOA


MENDEBERRI 2000

lkerketa eta transferentzia sustatuz



MENDEBERRI 2025

DUAL aldeko apustua. Enpresa eta unibertsitate harremanak sendotuz



KANPORA BEGIRA HAZTEN

Euskal Herriko hedatzea: Bidasoako Campusa, Gastronomía Zientzien Fakultatea - Basque Culinary Center, Goierriko campusa, Orona-Ideo campusa, Bilbao Berrikuntza Faktoria eta Bilbao AS Fabrik campusa



Argazkian ezkerretik eskuinera: Vicente Atxa, Iosu Zabala, Ignacio Lacunza, Javier Retegi eta Inaxio Oliveri.

praktikotasunaren eta eredu DUALaren alde egindako apustua. Hau posible izan da unibertsitateak betidanik enpresa eta erakundeekin izan duen gertuko harremanaren ondorioz. Atxak dioenez “unibertsitatea gai izan behar da enpresaren beharrak identifikatzeko, eta DUALaren bitartez ikasleak bere unibertsitate formazioa enpresetako egonaldiekin uztartzean enpresa mundura egokitutako gaitasun bereziak garatu ditzake”. Retegik argi dauka enpresarekin dagoen harremana Mondragon Unibertsitatearen DNAren parte dela, hezkuntza enpresa sendotzeko baliabidez jotzen baitu, eta baita alderantziz, enpresa hezkuntza sendotzeko. Horrez gain, Mondragon Unibertsitateak duen bestelako



**Unibertsitatearen bereizgarri bere hezkuntza eredu propioa izan da (...) Mendeberrri hezkuntza ereduak beste abiadura bat eman ziola hezkuntza berrikuntzari”.**

berezitasun bat nabarmentzen du, ikasleak bere formazioa bukatzean naturaltzat duela enpresarako trantsizioa, “ikaslea lan munduan murgildua egon denez ez du behar ikasketak bukatzerakoan kokatze fase bati aurre egitea”.

Unibertsitatea, zentro teknologikoak eta enpresen arteko ikerketa kolaboratiboaren eredu ere Unibertsitateko berezitasunetako bat da, non, ikerketa eta transferentziak paper protagonista hartzen dute. Gainera, Atxaren ustez, Euskadiko enpresak lehiakorraziteko puntako teknologia behar dute, eta horretako ikertu behar da, unibertsitate eta enpresaren arteko harremana etengabekoa izanik. Honi jarraiki Zabalak dio Euskadin gaur egun

erreferentediren CAFedo Oronabezalako enpresak duela 35 urte ez zeudela egun dauden tokian, eta bertara iristeko Unibertsitateetik bideratutako ikerketak izan duen paper protagonista aitortu beharra dagoela. Hala ere, egindako lanagatik autokonplazentzian erortzetik urrun, Vicente Atxak argitu nahi izan du gaur egun Unibertsitateak enpresarekiko erronka berriak izaten jarraitzen duela, nagusia ekintzailetasuna izanik: “gure inpaktu sozioekonomikoa areagotu nahi baldin badugu unibertsitateetik bideragarri izango diren enpresa berriak sustatzeko gai izan behar gara”.

#### **Kanpora begira hazten**

Debagoienean hartu zuen forma Mondragon Unibertsitateak, bertan egonkortuak zeuden hiru fakultateren

elkartzearekin, baina behin erakundea kontsolidatuta, kanpora begira jarri zen. Lehenik eta behin Euskal Herriko espazioa irabaztea garrantzitsutzat jo zen, eta horrela Bidasoako Campusa ireki zen Inaxio Oliveri errektore zela. Oliveriren hitzetan “Mondragon Unibertsitatearen ezagutza zabaltzea oso garrantzitsua iruditzen zitzaidan, eta ikasle kopurua jaisten arizela ikusita hedapenaren alde egin genuen”. Une hartan Irunen unibertsitate campus berri bat ezartzeko aukera egon zen, eta inguruko azterketa demografiko bat egin ondoren egokitzat hartu zen bertan Enpresagintza Fakultateko campus berri bat martxan jartzea.

Urteak aurrera egin ahala, erakundearen hedapenean urrats gero eta garrantzitsuagoak eman ziren, eta Iosu Zabala errektore zela unibertsitateak zenbait mugari ezarri zituen, nagusia laugarren fakultatearen sorrera izanik. Euskal gastronomian erreferente diren sukaldarien antzinako desio bat zen gastronomia sektorearekin lotutako goi mailako ikasketa akademikoak martxan jartzea. 2011n sortu zen Gastronomia Zientzien Fakultatea – Basque Culinary Center eta Estatu mailako lehen gastronomia gradua abiarazi zen, Mondragon Unibertsitatea tradizio handiko sektore batean berrikuntzan aitzindari bilakatu.

Horrez gain, Gipuzkoan egonkortze garrantzitsua eman zen sasoi honetan, alde batetik Goi Eskola Politeknikoak Goierrin irekitako campus berriari esker, eta bestalde Orona-Ideo campusa martxan jarri zela Galarretako industrialdean, ingeniari ikasketak Donostialdean ere eskainiz. Bestalde, Bilbon, nahiz eta Unibertsitateak bazuen nolabaiteko presentzia, hedapen fase honetan Bilbora saltoa estrategikoa bihurtu zen, eta horrela jarri zen martxan Bilbao Berrikuntza Faktoria 2008an eta 2020an etorri zen Bilbao AS Fabrik, lehen campus multidiziplinarra.

Horrez gain, unibertsitatearen zabalkundearen nazioartearekin izandako harremanak duen papera guztiz nabarmentzekoa da. Vicente Atxak argi dauka Mondragon Unibertsitateak ikasleen mugikortasunaren alde egiten duela, ikasleei beraien etorkizun profesionalerako aberasgarriak



## GOIERi esker, “Erasmus sortu aurretik Arrasatetik pasatako 90 ikasle baino gehiago zeuden munduan zehar”.

izango diren esperientzia pertsonalak eskainiz. Horrez gain, Ignacio Lacunza ez du zalantzarik Mondragon Unibertsitatearen ekosistemaren garapenean nazioartearekin izandako harreman ezinbestekoa izan dela, eta balioan jarri izandako GOIER mugikortasun programaren papera. Bere hitzetan

“GOIER inoiz izan dugun proiekturik merkeena izan da, inguruko enpresa garrantzitsuenak aztertzen baditugu hauetan direktiba karguetan dauden pertsonen ehuneko handi bat bertatik pasatakoa baita”. Erasmus programa sortu aurretiko mugikortasunean GOIER protagonista argi dugu, izan ere, Zabalak dioenez, GOIERi esker, “Erasmus sortu aurretik Arrasatetik pasatako 90 ikasle baino gehiago zeuden munduan zehar”.

Horrela ari da idazten bere historia Mondragon unibertsitatea, bizirik dagoen historia. Vicente Atxak bere azken hausnarketa batean dioenez bezala, “orain dela 25 urte biderkatzeko batu ginen, oinarri sendoak jarri etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Eta guzti hori enpresekin harremanetan,

pentsamendu globalarekin eta izaera kooperatiboa mantenduz lortu dugu, gaur egun unibertsitate heldu baina era berean oso gaztea izanik”.

Eta gazte segi dezala, etengabe hazteko gogoz.



**Pentsamendu globalarekin eta izaera kooperatiboa mantenduz lortu dugu, gaur egun unibertsitate heldu baina era berean oso gaztea izanik .**

EN

## YESTERDAY'S SEED, TODAY'S FLOWERS

FOR ITS 25th ANNIVERSARY, MONDRAGON UNIBERTSITATEA BROUGHT TOGETHER FORMER DEANS IGNACIO LAKUNZA, JAVIER RETEGI, INAXIO OLIVERI, IOSU ZABALA AND VICENTE ATXA TO DISCUSS THE EVOLUTION OF THE INSTITUTION

Mondragon Unibertsitatea was created in 1997 with the Polytechnic, Humanities and Education Sciences, and Business schools. Ignacio Lacunza was the dean until 1999. He was followed by Javier Retegi (1999 - 2002), Inaxio Oliveri (2002 - 2007), Iosu Zabala (2007-2014) and Vicente Atxa (since 2015).

### A Grand Occasion

All the deans agree 25 years of progress merits celebration. Lakunza remarked, “the current university was unfathomable in the early days”. His successor, Javier Retegi, likens it to “a tree with strong roots where new branches grow on a firm trunk”. Inaxio Oliveri presented the bill to create the university and he’s joyful to remain part of it adding, “We’re ready for change and that gives me hope.”

Iosu Zabala focused on the university’s perseverance, “We’re unique and wonderful and we should be proud.”

### A Unique Style from the Start

Mendeberri 2000 started with Javier Retegi and he notes, “Companies do short term research, Ikerlan medium term and we do long term research.” The DUAL model deepens private sector relationships. “Companies’ needs are important, DUAL lets students develop skills for business.” Basque companies need good technology, which takes research.

Retegi sees private sector relationships in Mondragon Unibertsitatea’s DNA. Education strengthens business and vice versa. Our students, he notes, “get real-world experience so they can go straight to work.”

Zabala notes the role of research for leading Basque companies like CAF and Orona. But for Atxa, “If we want to increase our socio-economic impact viable new companies must be promoted.”

### Growing Looking Outwards

Mondragon Unibertsitatea always looked outwards. The Bidasoa campus was opened “to expand and spread the Mondragon Unibertsitatea idea.” We saw an opportunity and opened a business school in Irun. The first such programme in the country, in 2011 the pioneering Basque Culinary Center fulfilled a long-standing dream.

After the Goierrri and Orona-Ideo campuses were opened, Bilbao was the goal. The Bilbao Berrikuntza Faktoria opened in 2008 and Bilbao AS Fabrik opened in 2020.

For Atxa international relationships lead to personal enrichment and for Lakunza they’re key to the ecosystem, “GOIER has been our cheapest programme. Most people running local companies went through it”. According to Zabala, “Before Erasmus we had 90 students abroad.”

The history of Mondragon Unibertsitatea is alive. Vicente Atxa says, “We came together 25 years ago and laid solid foundations by being in touch with business, global thought and the essence of cooperativism. Today, the university is mature yet still very young.”

It should stay young and not lose its desire for growth.

# Betoz beste hogeita bost. Zorionak!

**Jokin Bildarratz** HEZKUNTZA SAILBURUA



**M**ondragon Unibertsitatea adibide da lidergoan, berrikuntzan, lankidetzan eta konpromisoan, egindako bidetik ikasiz etorkizunari begira aurrera egiteko moduaren eredu. Hogeita bost urtez gure gizartearen zerbitzura egindako ahaleginak merezi du atzera begiratu eta egindako aurrerapen guztiak aintzat hartzea.

Urteurren honek aukera ematen digu Mondragon Unibertsitateak beti izan duen lankidetzajarrera aitortzeko. Bai sorreran eta baita ibilbidean ere lehen tasuna eman zaio Eusko Jaurlaritzarekin harreman-esparru egonkorra izan eta elkarlanean aritzeko helburuari. Azken urteotan zabaltzen joan den bide bat eraiki dugu. Unibertsitatearen eginkizun nagusien garapena -heztea, ikertzea eta ezagutza transferitzea- inpaktu sozialean oso errotuta dagoen ikuspegi batekin bateratzen jakin dugu. Ibilbidea ondo zehaztuta dago.

Bat gatzoz, halaber, epe ertain eta luzerako erronka dela Unibertsitatearen lehiakortasuna are gehiago bultzatzea lankidetzaren horretatik abiatuta, nazioartean egiten duen lana sendotuz eta gure gizartearen beharrei erantzunez, hau da, Euskal Unibertsitatearen eredu nazioarteko osagaiaren bidez bultzatuz.

Mondragon Unibertsitatearen proiektua ekintzailatza eta lankidetzaren ekosistema batean sortu zen, eta prestakuntzaren eta produkzio-sare errealaren arteko lotura zuzenean oinarritutako ibilbidea egin du. Horixe da, oraindik ere, "Unibertsitatea + Enpresa" Programaren bidez partekatzen dugun ardatz estrategikoetako bat, ikasleak proiektuaren erdigunean kokatuz beti, prestakuntza praktikoa sustatuz eta nazioarteko maila goreneko ikerketa bultzatuz. Hori guztiak gure sustraietan, euskal kulturaren eta hizkuntzan oinarriturik, Mondragon Unibertsitatearen proiektuaren funtsezko elementuak baitira horiek, betiere gure herriarekiko konpromisoaren zerbitzura, gero eta globalizatuagoa den mundu honetan. Urteurren honek aukera ematen digu Mondragon

Unibertsitateko unibertsitate-komunitate osoak egindakolana eta sustraitzea balioesteko. Hauen lanari esker, lankidetzaren estuak sortu dira enpresekin, kooperatibekin eta erakundeekin, bai Euskadin, bai nazioartean. Hortxe du, zalantzarik gabe, Mondragon Unibertsitateak bere proiektuaren indargunea eta funtsezko ekarpena, 1997an hasi zenetik.

Hezkuntza Sailetik lankidetzarako espiritu berarekin jarraituko dugu lanean, unibertsitateko profesionalen lana bultzatzeko politikak artikulatuz, euskal gizartearen eta gizarte osoaren garapen sozial eta ekonomikoan duten eragin-gaitasuna balioetsiz eta indartuz. Gure helburuetako bat da lotura zuzena erraztea unibertsitatearen eta gure gizartearen egungo zein etorkizuneko erronka eta trantsizioen garapenaren artean. Gizarte honek unibertsitate-sistema propioa garatzearen aldeko apustu irmoa egiten du, eta baliabide publikotan oso kopuru garrantzitsuak inbertitzen ditu helburu hori lortzeko. Horren adibide, Unibertsitate Sistemaren Planak 30 milioieuroko ekarpena egiten dio orainsu Mondragon Unibertsitateari, eta, horri esker, unibertsitate-prestakuntza dual berria edo Mendeberrri 2025 esparru pedagogikoa bultzatzen ari gara.

Inbertsio horri esker, 2026rako ikuspegiaren identifikatutako lehentasun eta helburuei lagundu ahal izango diegu: prestakuntza duala; bizitza profesionalean zeharreko prestakuntza; nazioarteko prestakuntza duala; nazioartekotzea Euskadi-Basque Country ziguilurekin; ibilbide luzeko bikaintasun-ikerketa, IKUR proiektuaren bidez. Gure asmoa da 10.000 ikasleri unibertsitate-prestakuntza dualerako aukerak eskaintzea, tituludunentzaten presetan 5.000 egonaldi baino gehiago sustatzea, edo "Enpresa + Unibertsitatea Gela" gehiago izatea. Urteurren honetan, Mondragon Unibertsitateari eskerrak eman nahi dizkiogu helburu estrategiko horien ikuspegiaren, diseinuan, gauzatzean, ebaluazioan eta hobekuntzan parte hartzeagatik.

Gaur egun, Mondragon Unibertsitateak bere ezagutza eta esperientzia eskaintzen ari da 2023-2026 aldirako Unibertsitate Sistemaren Plan berria egiteko prozesuan. Elkarrekin lan eginez, "gure unibertsitate-sistemaren nazioarteko trantsizioak" dakarren erabateko eraldaketa bultzatzeko oinarriak ezarri nahi ditugu. Mondragonen esperientzia ikuspegi bikoitzeko nazioartekotze-ereduari gehitzen zaio. Alde batetik, tokiko ikuspegia, nazioarteko eskaintza edo ikasleen mugikortasuna sustatzen duena. Bestetik, kanpora begirako ikuspegia, gure unibertsitateek nazioarteko testuinguruan duten posizionamenduari heltzen diona, arreta ipinirik betiere talentua erakartzean hiru trantsizio globalei erantzuna emateko -teknologikoa eta digitala; energetikoa eta klimatikoa; sanitarioa eta soziala-, eta euskal gizartearen garatzeko laguntza gisa.

Mondragon Unibertsitatea euskal unibertsitate-politikaren funtsezko pieza da. Honek bultzatzen duen ereduaren pertsonen etengabeko prestakuntza jasotzen dute; ekonomia, kultura eta gizarte-eragileekiko lankidetzaren bultzatzen du; nazioarteko ikerketa-talde edo zentroen sare zabal batean parte hartzeaz sustatzen du. Hori guztia, gero eta irekiagoa eta lehiakorragoa den mundu batean gure gizartearen eraldatzen laguntzeko.

Lehen 25 urte hauek ospatzeak etorkizunera begiratzeko aukera eman dio Mondragon Unibertsitateari. Pozez egiaztatu ahal izan dugu Unibertsitateak pertsonen prestakuntza integralarekin duen konpromisoa areagotzen duela, proiektu berritzaileak abian jartzeko talde berriak osatzen dituela, ezagutza zientifiko-teknologikoan inbertitzen duela edo ezagutza hori beste eragile batzuei transferitzeko gaitasuna hobetzen duela. Mondragon Unibertsitateak gaitasun handiagoarekin eta lehen eguneko ilusioarekin egingo dio aurre etorkizunari, lankidetzaren prestakuntza integralaren, lankidetzaren sustapenaren eta euskal gizartearen eraldaketa positiboaren zerbitzura. Eta betoz beste hogeita bost. Zorionak!



## “Mondragon Unibertsitatearen esentzia komunikatzean asmatu behar dugu”

**Susana Azpilikueta**  
**Mondragon Unibertsitateko Komunikazio arduraduna**

25URTEPASADIRAMONDRAGONUNIBERTSITATEAMARTXAN JARRIZENETIKETAHARREZKEROKONTUASKOALDATUDIRA, BESTEAK BESTE, KOMUNIKAZIOARI LOTUTAKOAK. HASIERA BATEN ERAKUNDEAREN NONDIK NORAKOAK AZALTZEKO EGINDAKOLANAK TENDENTZIA BERRIEIEMANDIOLEKUKOA, ETA EGUNGO ERREALITATEAN ERREFERENTE IZATEN JARRAITZEKO KOMUNIKAZIO ARLOAN AKTIBO IZATEKO APUSTUA SENDOA DA.

Mondragon Unibertsitateak bere ibilbidean zehar komunikazioaren arloan izandako garapenez eta egungo tendentziei buruz aritzeko Unibertsitateko Komunikazio arduraduna den Susana Azpilikuetaekin izan gara.

**Nola gogoratzen duzu unibertsitatearen sorrera?** 1997an ni ez nengoen hemen baina lankideek esandakoaren arabera, Mondragon Unibertsitateak sortu zenean, 1997an, hiru fakultateek modu independentean funtziona-



“Argi dugu unibertsitateak errelato propio eta koherentea izan behar duela da, marka balio bat garatuz”

tzen zuten. Goi Eskola Politeknikoa, Enpresagintza eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea ditugu hauek, bailaran eta inguruan aski ezagunak zirenak. Une honetan erakunde berri bat sortu zen, Euskal Herrian ezezaguna, eta gizartean zein merkatuan bere espazioa aurkitu behar zuena.

Horretarako, barne komunikazioa lantzen hastea da premia, hiru fakultate ezberdinetatik etorritako profesional zein ikasleengan erakunde berri batekiko pertenezia sentimendua garatzeko, gureak ditugun balio kooperatiboek esker errazago bilakatu zena.

Kanpora begira, aldiz, Mondragon Unibertsitatea ezagutzera emateko esfortzu eta inbertsio handia egin zen, momentuan bogan zeuden komunikabideak modu egokian erabili eta komunikazio tresna propioak garatzeaz. Lan handiarekin lortu zen unibertsitatea Gipuzkoa mailan posizionatzea, eta behin hau lortuta posible bilakatu zen mugetatik harago begiratzen hasia.

**Erakundearen egonkortze prozesu**

**hau nolakoa izan zen?** Hasieratik kontziente ginen komunikatzeko beharrizan nabarmena zegoela. Hori dela konfort gunetik atera eta ekintza berriak gauzatzen hasi ginen, esaterako ikastetxeetara gure unibertsitatea eta eskaintza azaltzeko bisitak egin, hezkuntza azoketan parte hartu edo medioetan presentzia irabazi. Fakultateen arteko oreka lortzen ere lan handia egin zen, guztiek gizartean zegoen irudia eta indarra lortu zezaten

Pixkanaka, ereindakoaren fruituak jasotzen hasi ginen, eta gaur egun ezagutzen dugun unibertsitatearen izana pausoz pauso gorpuztu zen.

**Hazkundearekin batera beharrizan komunikatibo ezberdinei aurre egin behar zaie. Asko aldatu al da komunikatzeko modua?** Une oro argi izan dugun zerbait unibertsitateak errelato propio eta koherentea izan behar duela da, marka balio bat garatu eta erakundearen ordezkariak honen jabe egin.

Komunikazioaren esparrua lantzearen garrantziaz jabetu gara, eta gaur egun zenbait pertsonen osatutako komunikazio talde egonkor bat dugu. Era berean unibertsitatearen komunikazio taldean bai errektoretzak zein fakultate bakoitzak ordezkariak jarri dituzte komunikazio batzorde hau sendotzeko; hala nola publizitatearen kontratazioarako, webgunearen eguneratzerako, garapen digitalerako...

Gizarteak eraldaketa nabarmena bizi izan du azken urteotan komuni-

kazioaren ikuspegitik, eta erronka berriei erantzuten jakitea ezinbestekoa da guretzat. Gure bezeroa toki ezberdinetan mugitzen da eta horra iritsi behar gara unibertsitatea ezagutzera emateko.

Horrez gain, gure publikoa zaintzen ere asmatu behar dugu, eta hautentzat sortu genuen duela urte batzuk *MUniversitas* aldizkaria, MUtelebista edo kudeaketa propioa duten sare sozial ezberdinak.

**Gaur egun, zeintzuk dira komunikazio arduradunak dituen erronkak?** Pandemia dela eta azken bi urteotan komunikazioaren aldetik momentu kritikoak bizi izan ditugu. Gertakizunen abiadura oso altua izan da eta azkar erantzuteko gai izateko une oro adi egon behar izan gara. Honek esfortzu handi batera derrigortu gaitu.

Horretaz aparte, aurrez aipatu bezala, azken urteotan unibertsitateak komunikazioari dagokion garrantzia eman dio, eta gaur egun talde trinko bat dugu horretara bideratua. Komunikazio korporatiboa lantzen dugu, euskarri komunikatiboak garatu edo ikasleen orientazio taldea kudeatu. Komunikazio arloko profesional askok beraien lanorduak eskaintzen dituzte egungo erronkei aurre egin ahal izateko. Kontuan izan behar dugu unibertsitatea beste esparru geografiko batzuetara zabaltzen ari dela, eta ez da berdin komunikatzen Euskal Herrian, estatuan edo nazioartean, besteak beste kanalak edo kontsumo ohiturak ezberdinak direlako. Hori dela eta, ezagutza propioaren garapenean ere indarra egiten dugu, gure ezagutza mailaren arabera publiko bakoitza eta gure helburuen arabera estrategia ezberdinak modu egokian garatzeko gai izango garela uste dugulako.

Dena den, argi dugun zerbait da garena komunikatu behar dugula: unibertsitate praktikoa bat, kalitatezkoa, konprometitua, pertsonen garapenean oinarritutakoa eta enpresaren eta gizartearen beharrezanetara bideratua, mundu errealeko erronkei aurre egiteko pentsatua dagoena.

**Bukatzeke, nola laburtuko zenuke zure ibilbidea komunikazio arduradun bezala?** Duela 17 urte hasi nintzen hemen lanean, eta tarte honetan Debagoieneko bailaratik Euskal Herri osora, estatura eta nazioartera eman-



“Komunikazio batzordea osatzen dugun taldekideok ilusioz aurre egiten diegu egungo erronkei”

dako saltoa barrutik bizitzeko aukera izan dut.

Gainera, komunikazioak unibertsitatean hartu duen garrantziak eraman gaitu komunikazio kanal edo produktu berriak sortzera (*MUniversitas*, ikus-entzunezkoak, sareak edo webgune interaktiboak) eta marka gogoeta baten ondorioz storytelling propioa zehaztu dugu. Komunikazioa erabat azkartu da, hemen hasi nintzenean posible zen urte osoko komunikazio plangintza bat diseinatzea, baina orain egunerokotasunak abiadura handia hartzen du. Horregatik, datuetan oinarritutako komunikazioa ere txertatu dugu, eskura ditugun tresnak erabiliz datu-ekkomunikazioa efizienteago izatean ahalbidetzen baitigute.

Zorionez, Mondragon Unibertsitatean komunikazio batzordea osatzen dugun taldekideok lan esparru hau maite dugu, lan giro ezin hobea daukagu, eta horrela eguneroko erronkei aurre egitea errazagoa da. Lantaldean ilusioa nabari da, eta horrela lortuko dugu etorkizunak aurrean jarriko dizkigun aukera berri eta desberdinei aurre egitea.

# Talentua talentuarentzat

MONDRAGON UNIBERTSITATEA ETA TEAMLABS-EK ENPRESA EZBERDINEKIN BATERA TALENTUAREN BILAKETAK ETA PERTSONEN KUDEAKETAK AURKEZTEN DITUZTEN ERRONKAK AZTERTU DITUZTE BARTZELONAN



Profil desberdinez osatutako mahai-ingurua.

**Enpresagintza Fakultatea** | Mondragon Unibertsitateak eta TeamLabs ikaskuntza-laborategiak, Tech Barcelonan «Talentua talentuarentzat: garai berriak, gaitasun berriak» mahai-ingurua antolatu zuten. Pertsonen talentuaren kudeaketa estrategikoari buruzko unibertsitate-masterraren (MTalent) eta Mondragon Unibertsitatearen programaren aurkezpenaren testuinguruan egin zen ekitaldia. Master berri hau Bartzelonan egin ahal izango da irailtik aurrera, eta bertan hasieratik landuko dira enpresa arloan ematen diren egoera errealak.

Joan Clotet talentu digitaleko aholkulariak aurkeztu eta moderatu zuen mahai-ingurua, eta Mondragon Unibertsitateko eta Teamlab-seko (MTalent) pertsonen talentuaren kudeaketa estrategikoari buruzko masterreko koordinatzailea izan zen bertan. Harekin batera, Javier Agea, People & Cultura Manager Ikea Sabadellen; Fidel Mallo, People Leader Eurofirms; Ana Fernández de Gaceo, Fabrikari Adegin kolaboratzailea; Mikel Mesonero, Mondragon Unibertsitatean Talentuaren Kudeaketa Sortzeko eta Garatzeko koordinatzailea; eta Begoña Echaburu, Mondragon Unibertsitatean MTalent Masterraren koordinatzailea izan ziren.

Parte-hartzaileek batez ere eremu digitalean gaur egun konpetentzia maila altua duen talentuaren egoerari eta kudeaketa-beharrei

buruz eztabaidatu zuten Bartzelonan, hainbat ikuspegi kontuan izanik.

## Pertsonen zuzendua

Mondragon Unibertsitateetik Begoña Echaburuk azaldu zuenez, «Pertsonak erdigunean jartzen dituen kudeaketa-eredu baten parte dira. Berrikuntzaren, gizarteraldaketaren eta gure gizarte eta enpresa proiektuen protagonista diren pertsonen faktoreek ezaugarritzen gaituzte. Horrekin guztiarekin bat etorritik, eta MTalent ekosistematik abiatuta, ikaskuntza bereizgarriko proposamen bat egiten dugu, unibertsitatearen eta enpresaren arteko mugaklausotzea eragiten duena, enpresek pertsonen bizi-zikloari dagokionez dituzten benetako erronketan zehar bidaiatzen duten edukiaren arabera ibilbide bat eskainiz». Mikel Mesonero aldiz hurrengo gaineratu zuen: «Etengabe aldatzen ari den egoera sozial eta laboralean, trebetasunen eta gaitasunen garapena bermatuko duten ikaskuntza-eredu berriak behar ditugu. MTalent Masterrak non enpresak, ikasleak eta unibertsitateak denbora, espazioak eta esperientziak partekatzen dituzten gaitasun horien garapena bermatzeko ikaskuntza-ekosistema bat du ardatz».

# IoT-aren segurtasuna hobetu

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK EUROPAKO INSECTT PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DIHARDU, EUROPAR BATASUNeko ETA TURKIako 12 HERRIALDETAKO 52 BAZKIDEREKIN BATERA.



InSecTT proiektuan erabilitako prototipoa.

**Goi Eskola Politeknikoak** | InSecTT (Intelligent Secure Trustable Things) proiektuan parte hartzen du. Proiektu horrek irtenbide seguruak planteatzen ditu Europako industriarentzat Gauzen Interneteko hornidura-kate osoan zehar. Mondragon Unibertsitateko irakasle-ikertzaile taldea, zehazki, automobilgintzaren eta trenbideen sektoreko bide-segurtasunera bideratutako komunikazio-soluzio adimendunak ikertzen eta garatzen dabil. Proiektu osoa Europar Batasuneko 12 herrialdeko eta Turkiako 52 bazkidek osatzen dute, eta 40 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua du, 3 urtetan banatuta.

## Konfiantzazko aplikazioak eskaintzea

IoTak onura ugari eskaintzen dituen arren, gailu horien ahultasuna, segurtasunari dagokionez, arazo bat da oraindik ere. Horidela eta, erabiltzaileek gero eta konplexuagoak eta adimentsuagoak diren gailuak ulertzeko eta horietan konfiantza izateko erronkari aurre egin behar diote, eta horrek mesfidantza sortzen du askotan, erabileran zalantzak sortzen ditu, baita arbuioa ere. Horri erantzunez, sistema adimenduneko konfiantza sortzea eta haien onarpen soziala handitzea da erronka handienetako bat, IoTaren potentzial guztia ateratzeko, eta IA oinarritutako sistema eta irtenbide adimendunetara eramateko eta hurrengo mailara eramateko: gauzen Adimen Artifizialera (IAoT), hain zuzen ere.

**Mondragon Unibertsitateko irakasle-ikertzaile taldea, zehazki, automobilgintzaren eta trenbideen sektoreko bide-segurtasunera bideratutako komunikazio-soluzio adimendunak ikertzen eta garatzen dabil.**



## Business Data Analytics Graduko ikasleak EITBn

**Enpresagintza Fakultatea** | Estudiantes de primer curso del Business Data Analytics-eko Graduko lehen mailako ikasleek EITBko instalazioak bisitatu zituzten. EITBn, Euskadiko lehen komunikazio-taldean, harrera bikaina izan zuten, bertan egiten diren datuen analisi eta tratamenduko erabilera batzuk sakonago ulertzeko aukera izanik.

Bisita instalazioetatik egindako ibilbide batekin hasi zen, eta horri esker, hurbilagotik ezagutu ahal izan zuten EITBren egunerokoa, besteak beste telebistarako, albiste digitalak ekoizteko edota irrati zein prentsarako egiten diren azterketei dagokiona.

### Errealitatea aztertzen

Bisitaldian, ikasleek aukera izan zuten audientziak neurtzeko automatizazioan sakontzeko; hainbat agenteren audientzien datuak nola jasotzen dituzten, datu horiek nola integratzen dituzten eta audientzien jarraipena egiten duten jakiteko, departamentutik sortzen diren txostenak oinarri izanik.

Bisita honek kasu erreal baten azterketa ekarri zuen, EITB taldearena zehazki, eta bertan ikusi ahal izan zuten oso garrantzitsua dela datuak integratzea soluzio mota zehatz horietarako. Bisita honek elkarlanerako aukera berriak irekiko ditu ziurrenik, dagoeneko gauzatzen ari direnetatik harago.



Graduko ikasleak EITBra egindako bisitan.

## “Unibertsitate-enpresa lankidetzan bultzatu behar dugu”

GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO BERRIKUNTZA, ANTOLAKUNTZA EREDU ETA KUDEAKETA ESTRATEGIKOKO ALORRAK AGENTE EZBERDINEN ARTEKO ELKARLANA SUSTATU NAHI DU. ABIAPUNTU HAU HARTUTA GARATU DU MARIA VIVAR IKERLARIAK BERE DOKTORE TESIA.



Maria Vivar ikertzailea.

**Goi Eskola Politeknikoa** | Zergatik jarri duzu zure tesiaren fokoa manufaktura-enpresa txiki eta ertainetan? Gure enpresa-ehundura batez ere manufaktura-enpresa txiki eta ertainek osatzen dutenez, unibertsitate esparruarekin duten lankidetzan maila baxuaren arrazoiak ezagutzea funtsezkoa zaigu horietara iritsi ahal izateko.

**Zein da tesiaren helburua?** Unibertsitateekin garatzen den lankidetzan eragina duten

antolaketa faktoreak identifikatzea, hau da, ezaugarriak, gaitasunak eta enpresa baliabideak. Horretarako, 14 CUE jarduera mota aztertu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko 332 manufaktura-enpresa txiki eta ertainen lagin esanguratsuekin.

### Zeintzuk izan dira emaitzak?

Ikusi dugunez, lankidetzan aritzen diren enpresek gaitasun aurreratuagoak dituzte lankidetzan aritzen ez direnek baino. Era berean, ikusi da jarduera errazenean, hala nola ikasketen amaierako proiektuen garapenak, ez dutela gaitasun aurreratu horien beharrik. Hala ere, I+Gko, ekintzailetzako edo gobernantzako proiektuak garatzeko baliabide aurreratuak beharrezkoa dira.

**Euskal enpresa txiki eta ertainek elkarlanaren aldeko apustua egiten al dute?** Administrazioak eta unibertsitate-esparruak berak lankidetzan hori sustatzen dute; izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako proiektu baten barruan, hiru alorrek (unibertsitatea, enpresa, administrazioa) partekatzen duten ibilbide-orri bat zehazten ari gara, enpleguaren kalitatea eta Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoa sustatzeko.

## STEMotiv proiektuak bigarren saria irabazi du STEAM Euskadi Sarietan

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** | Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saialak antolatzen du lehiaketa hezkuntza zientifiko-teknologikoko jardunbiderik onenak saritzeko helburuarekin.

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ZiTeO ikerketa taldeak bultzatutako STEMotiv proiektuak STEAM Euskadi Sarietako bigarren saria jaso du. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saialak antolatzen du lehiaketa eta helburua da hezkuntza zientifiko-teknologikoko jardunbiderik onenak nabarmenetzea. Ekainaren 8an egin zen sari banaketa ekitaldia Bilbon.

STEMotiv proiektuaren xedea da STEM hezkuntza bultzatzea eta ikasleen eta batez ere nesken STEM ikasketak sustatzea eta horretarako behar diren konpetentziak hobetzeko bitartekoak eskaintzea. Lehiaketa konpetitiboak lortutako proiektuaren bigarren edizio honetan, iazko ikasturtean hasitako ikerketa-lanari segida emango diote eta STEM irakasgaietako irakasleen formazioan eraginez sakonduko dute. Vicomtech eta Ikaslan Gipuzkoarekin batera egiten dugu STEMotiv proiektua.



STEAM Euskadi sari banaketa ekitaldia.

## Pablo Rodríguez Arias, 2022ko Martiko Erronkako irabazlea



Rodríguez Arias nabarmendu zen bere sukaldatzeko teknika garbiagatik.

**Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea** | Pablo Rodríguez Arias, Gastronomía eta Sukaldaritzaren Arteak graduko hirugarren mailako ikasleak irabazi du Basque Culinary Centerren ospatu den Martiko Erronkako 8. mailako finala. Magret, foie gras eta ahate-urdaiazpikoa oinarri hartuta, Bidasoatik hegoaldera egin zuen proposamena baliagarria izan zaio azterketetarako Martiko Beka (4.650 euro) lortzeko.

Carlos Collado Basque Culinary Centerreko chef irakasleak, Fernando Palacio Basque Culinary Centerreko chef ikertzaileak eta Luis Brea I+G zuzendari eta Martikoko sukaldari korporatiboak osatu dute epaimahaia, eta lehiakideen maila izugarria nabarmendu dute, goi mailako jatetxe baten parekoa, bai exekuzioan, bai teknikan eta ñabarduretan.

Rodríguez Ariasen proposamenari dagokionez, epaimahaiak nabarmendu du akatsik gabeko exekuzioa izan dela eta teknika garatuak erabili dituela, magretaren eta foie grasen balioa ahalik eta gehien errespetatzen duen tratamenduari. Horrez gain, ahate urdaiazpikoaren tartar perfektua aurkeztu du, ñabarduretan eta marinatutako arometan. Gainera, proposamenaren konplexutasuna nabarmendu nahi izanda, goi mailako sukaldaritzako profesional baten parekoa baita, Martikoren produktuak ahalik eta osotasun handienera igoz, zapoari, teknikari eta gauzatzeari dagokienez.

**Epaimahaiak nabarmendu du akatsik gabeko exekuzioa izan dela eta teknika garatuak erabili dituela, magretaren eta foie grasen balioa ahalik eta gehien errespetatuz.**

### Produktua ardatz duen erronka zorrotza

Erronkak Gastronomiako Graduaren hezkuntza ereduaren funtsezko zati dira, eta ikasteko eta Fakultateko ikasleen gaitasunen eta grinaren onena sortzeko aukera paregabea.

Irabazleak aurkeztutako proposamena honako hauei gailendu zaie: Ander de La Hoz-en 'Baserritik', Andrea Faourren 'Martiko Kaiseki', Daniel Nicolás Martínezen 'Tiempo' eta Elena Pujolen 'Una paseo para recordar', guztiak ahatetik eratorritako produktuekin eginak.

## Irakaslea gaur egungo eta etorkizuneko hezkuntzan



Eragin ikerketa barruan egin zuten jardunaldia.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** | Ekainaren 8an, *Irakaslea gaur egungo eta etorkizuneko hezkuntzan* izeneko jardunaldia antolatu zuen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Jardunaldia Eskoriatzako campusean egin zen.

Jardunaldia antolatu zuten Eragin ikerketa proiektuaren testuinguruan. Proiektuaren xedea nagusia da hezkuntza-erakundeetan kalitatezko enplegua eta lantokia eta enplegua eraldatzeko ekimenak sustatzea. Xedea nagusi horri begira, ondoko helburuak ditu egitasmoak: batetik, irakasleen baldintzen eta gaitasun giltzarrien zehaztapena egitea; eta, bestetik, irakasleen baldintzak eta gaitasun giltzarrien ebaluazioa egitea eta ikasleen talentuarekiko erlazioa aztertzea.

### Jardunaldiaren zergatia

Gizartea bezala, hezkuntza testuinguruak aldatzen ari dira. Hezkuntza bera ez da trantsizio handietatik atzeratzen, besteak beste, digitalizazioa,

migrazio mugimenduak, iraunkortasunak edo osasun egoerak baldintzatuta da. Egoera aldakor honetan, irakasleek erantzukizun handia daukate, helburu akademiko tradizioetatik harago, etorkizuneko langileak izango diren ikasleen gaitasun giltzarriak eta zeharkakoak lantzen, orientatzen, ikaskuntza prozesuak aldatetara egokitzen edo ikaskuntza pertsonalizatua eta kooperatiboa sustatzen.

Gipuzkoak pertsona sortzaileak, kooperatiboak, malguak edo kritikoak behar ditu mende honetako erronkei behar bezala erantzuteko. Ildo horretatik, ezaugarri pertsonal horiek jarri dira jomugan hainbat kastetxe eta unibertsitateetan. Jardunaldian, ezaugarri pertsonal horiek sustatzeko gako diren irakasleengan jarri zen arreta. Besteak beste, galdera hau jorratu zituzten: zein rol izan behar du irakasleak ikasleen ezaugarri horiek sustatzeko? Zeintzuk dira irakasleak izan beharreko gaitasun giltzarriak? Testuinguruberritzailetan, nolako adirakasleen kalitatezko enplegua?

# Mondragon Team Academy-LEINN-en Learning Journey-ak

MONDRAGON TEAM ACADEMYREN (MTA) LEARNING JOURNEY EDO IKASKUNTZA-BIDAIK IKASKUNTZA-PROZESUAREN FUNTSEZKO OSAGAI DIRA, ETA BESTE KULTURA BATZUETAN ELKARRERAGITEA ETA ESPERIMENTATZEA DUTE HELBURU.

MTA sareak  
500.000  
kilometro  
baino gehiago  
egin ditu  
2022an 5  
herrialdeetan  
zehar.



MTAko ikasleak Koreara egindako bidaietan.

**Enpresagintza Fakultatea** | 2022. urtean, MTA sareko laborategiak, LEINN programaren barruan, munduko hainbat txokotara joan dira, hala nola Alemaniara, Koreara, Costa Ricara, Euskal Herrira edo Finlandiara.

40 Team Company baino gehiagok kultura berriak ezagutu ahal izan dituzte, eta hauetan esperimentatu, munduko leku berrietan proiektuak garatzeko aukera izanik. Balantze orokorra eginez, MTA sareak 500.000 kilometro baino

gehiago egin ditu 2022an, 5 herrialdeetan zehar. Bidaia hauetan 300 enpresa baino gehiago bisitatu dira, 2.000 ordu baino gehiagoko elkarrizketak mantenduz.

## Esperientzia berriak

Koreara egindako bidaia oso berezia izan da; MTAREN historian lehen aldiz laborategi guztiak elkarrekin egon baitira Seulen, bertan ikasketa esperientzia ezberdinak biziz. MTA eta SKHU Unibertsitatearen (Sungkonghoe University) arteko akordioari esker izan da hau posible, eta 15 Team Company-tako 180 LEINNER baino gehiagok egin dute beraien Learning Journeya Seulgo Laborategian. LEINNER guzti hauekin batera dagoeneko bi MTA Korea Laborategiko bi belaunaldiko ordezkariak eta LEINN Internationaleko talde bat egon dira, ikasleek Seulen garatu dituzten mota ezberdinetako proiektuak ikuskatzen. Proiektu hauetan Korean bogan dauden gaiak landu dituzte gehienbat, besteak beste Smart Cities sektoreko joerak eta kasu arrakastatsuak aztertzean eta jorratzen. Lan hau Espainia eta Koreako enpresa ezberdinei laguntza bat emateko helburuarekin bideratu da, Hackathons edo ekitaldietan partner edo aukera berriak bilatuz.

Gainera, Team Company hauek artearekin lotutako proiektuak ere garatu dituzte, eta bertan, herrialdeen arteko zubiak sortu bitartean, lan egiteko modu ezberdinetan sakondu ahal izan dute. Hauen artean egon dago adibidez Skink proiektua, produktuetan arreta jarriz tatuajeen sektorea profesionalizatzeko helburua duena.

## Fagor Ederlanentzako gaikuntza plana

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK FAGOR EDERLANEKO LANGILEEN TREBAKUNTZA EGUNERATZEKO GAIKUNTZA PLANA GARATU DU KOOPERATIBAREKIN ELKARLANEAN. HONI ESKER 45 LANGILEK BERAIEK PRESTAKUNTZA EGUNERATU DUTE, ETA PERFIL BALIOANITZA LORTU.

**Goi Eskola Politeknikoak** | Fagor Ederlan kooperatibako langileen trebakuntza eguneratzeko buruturiko gaikuntza planaren arrakastan paper protagonista izan du Goi Eskola Politeknikoak. Enpresarentzako zehazki diseinatu den plan honi esker Fagor Ederlaneko 45 langilek beraien prestakuntza eguneratzeko aukera izan dute. 2021eko azarotik 2022ko maiatzera garatu den programa honetan parte hartzaileak 376 orduz prestatu dira.

Plan honen helburu nagusiak kooperatiban prestakuntza gutxiagoko pertsonen enplegarritasuna erraztu eta hauen garapen profesionalerako beste aukera batzuetan laguntzea izan da. Era berean, Fagor Ederlanek bere plantillak balioanitzazateko eta mugitzeko dituen aukerak sendotu ditu.

### Apustu estrategikoa

Fagor Ederlaneko programaren arduradun Raquel Belategik dioenez ekimen hau “gure balio kooperatibo-

ekin eta pertsonetan oinarrituta dugun antolamendurekin lotuta dago”.

Programak Fagor Ederlanen fabrikazio plantetako langileak inplikatu ditu (txandaka lan egiten dutenak), eta baita unibertsitateko hogeitabi irakasle ere. Gaikuntza plan honen alderdi teoriko-praktikoak Fagor Ederlanentzat funtsezkoak diren teknologietako gaitasunetara bideratuta egon da, hala nola galdaketa, mekanizazioa, automatizazio sistemak eta prozesu industrialen antolaketa.



Proiektuan parte hartu duen taldea.

Raul Fernandezek, unibertsitatean programaz arduratzen den pertsonak, ziurtatu duenez, “programa diseinatzerakoan, enpresaren ekoizpen prozesuetan funtsezkoak diren teknologietan gaitzea izan da jomuga nagusia eta emaitza oso positiboa izan da, langileek oso harrera ona erakutsi diote planari”.

# “Boluntariotzari esker izugarri ari naiz ikasten”

IRUNE MARTÍN DIEZ BITERI IKASTETXE NAGUSIAK SUSTATZEN DUEN BOLUNTARIO ESPERIENTZIA BATEN PARTAIDE DA. BERARENTZAT ESPERIENTZIA BERRI BAT DEN HONETAN, BOLUNTARIOTZA BATEK ESKATZEN DUEN KONPROMISOA ETA TRUKEAN ESKAINTZEN DUEN HAZKUNDE PERTSONALA NABARMENTZEN DITU.



Irune Martín boluntaritzan lanean.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea Zergatik erabaki zenuen Biteri Ikastetxe Nagusiko boluntario taldera batzea?** Aurtengo ikasturtea unibertsitatean eman dudana lehena da, Hezkuntza gradua ikastera etorri baina Eskoriatzako campusera, baina baneukan nolabaiteko aurre ezagutza bat boluntario izateko aukeren gainean. Nire osabak Goi Eskola Politeknikoan ikasi zuen duela 30 bat urte, eta etxean behin baino gehiagotan entzun izan diot Biteri ikastetxe Nagusian egon zela boluntariotza ezberdinetan parte hartzen, beraz nolabaiteko mugimendua sustatzen zela banekien. Hori dela eta, sortu ahal ziren aukera ezberdinei adi egon nahi nuen, nire interesekoa zen kartel bat aurkitu nuen arte.

**Zertan ari zara zehazki?** Nire boluntariotza Hezkuntza ikasten dugunoi zuzendua dago, Arrasateko tutoretzapeko pisu baten bizi den ume bati eskolak ematen baitizkiot. Bera 15 urteko gazte marokoarra da, eta urtebete baino gutxiago darama Arrasaten. Astelehenetan elkartzen gara Biterin, 19:00ak eta 20:00ak bitartean eta nire helburua da pertsona bezala ahalik eta garapen

osoena izan dezan eskola edo etxer harago beste erreferente bat bilakatzea. Hala ere, batera gauden orduaz gain konpromiso jarraituago bat eskatzen du honek, besteak beste ariketen prestaketa edo asistentziaren kontrola ere nire baitan dago eta. Orain gaztelania irakasten ari natzaio, eta pixkanaka esan dezakegu aurrerapausoak ikusten direla.

**Beraz, gustura ari zara...** Oso. Ni neu ere pertsona bezala hazten ari naizela uste dut. Kontziente bilakatzen zara gizartean dauden errealitate ezberdinez, eta sarri izan ohi ditugun aurreiritziekin apurtzeko balio dezake. Horrez gain, arrazoia edozein dela kasualitatez hona iritsi diren pertsona hauek behar duten laguntzaz jabetzen zara. Ez da erreza bat-batean hizkuntza edo kultura berri bati egokitzea, eta egokitzapen honen parte zarela ikustea pozgarria da.

**Eta zer esango zenieke boluntario izateko zalantza duten horiei?** Animatzeko, ez dira damutuko eta. Biteri Ikastetxe Nagusiak urtero eskaintzen du boluntario izateko aukera. Ikasturte hasieran kartelei adi egotea baino ez dago, eta norberaren intereseko zerbait aurkitzean ez egin zalantzarik.

## Mikel Uralde ikasle ohiak irabazi du Huhezinemaren 15. edizioa

APIRILAK 1EAN ARETXABALETAKO ARKUPE KULTUR-ETXEAN EGINDAKO EKITALDIAN, HUHEZINEMA EUSKAL FILM LABURREN JAIALDIAREN 15. EDIZIOKO SARIAK BANATU ZITUZTEN.



Mikel Uralde saria jasotzen.

Sail ofizialeko sari nagusia irabazi zuen Mikel Uralde Mondragon Unibersitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasle ohiak Hormak film laburrarekin.

Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 4. mailako ikasleek antolatzen dute Huhezinema jaialdia, eta dagoeneko, erreferentziako jaialdia bilakatu da euskal film laburren panoraman. Aurtengo edizioan, gainera, bideoklipek sail berezia izan dute, eta lehen saria Nitya Lopezek zuzendutako “Teloia” lanak irabazi zuen.

### Palmares osoa

#### SAIL OFIZIALA:

**Huhezinema Saria** - Hormak / Mikel Uralde Arrue  
**Vertigo Saria** - Albondigas / Julen Higuera  
**Ikusleen Saria** - Berak baleki / Aitor Gametxo  
**Soinu Onenaren Saria** - Ur azpian lore / Aitor Oñederra  
**Mundukide Saria** - Yungay 7020 / Raquel Calvo Larralde

#### BIDEOKLIP SAILA:

**Bideoklip Onena 1** - Liher “Teloia” / Nitya Lopez  
**Bideoklip Onena 2** - Alai eta Pablo Reverte “Ozen” / Alai Ormazabal de Urresti  
**Bideoklip Onena 3** - Jhonny Graso “Espada y Rosa” / Marino Pardo Fuente

## Wise 20 under 20

PAU PAVÓN, 19 URTEKO BARTZELONAKO LEINN EKINTZAILEA, SONA HANDIA DUEN EUROPEAR LEHIAKETA HONETAN SARITUA IZAN DAM EDTECH KATEGORIAN

**Enpresagintza Fakultatea** | Pau Pavón, *Examfyren* sortzailea eta Mondragon Unibertsitateko LEINNEko (Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzako Gradu Ofiziala) ekintzailea/ikaslea da Mondragon Team Academy ekintzailtza-sareak Bartzelonan duen laborategian (TeamLabs partnerrak bultzatuta). Pavón egindako lanagatik saritua izan da Europako 16 urte eta gehiagoko ekintzaileen artean oso ospetsua den Wise 20 Under 20 lehiaketan, EdTech kategorian zehazki (hezkuntzako startup onena).

Pau Pavón, 19 urteko ekintzailea, karaktereen eta adimen artifizialaren ezagutza optikoa erabiltzen duen teknologia garatzen ari da irakasleei azterketak zuzentzen laguntzeko. Azterketa bakoitza mugikorrarekin eskaneatu ondoren, Examfyk aztertu eta ordenatu egiten ditu, izenaren eta oharren arabera, eta notak argitaratzeko edo partekatzeko aukera ematen du. Proiektuaren ideiak pandemian zehar ezarritako derrigorrezko konfinamenduan du hazia, eta sortzailearen arabera "hezkuntza sektorean garapen teknologikorik ezaren ondorioa da".

Une honetan, proiektua baliozkotze-fasean dago, eta proiektukideak Kataluniako, Madrilen eta Gaztela eta Leongo ikastetxe ezberdinekin harremanetan daude, ikasturte honen amaieran lehen probak egin eta irailean ikasturtearen hasierarako proba pilotu bat abian jartzeko.

### Europako etorkizuna ekintzaileen esku

Wisek, munduan zehar dirua mugitzeko modurik onena erakitzen ari den enpresa teknologiko globalak, 20 Under 20 kaleratu zuen duela bost urte, ekintzailtza gero eta gazte gehiagorengan bultzatzeko helburuarekin. Lehiaketak Europan talentu handiena duten 16 eta 19 urte bitarteko gazteak saritzen ditu, eta 2022ko edizioan Pau Pavón horien artean sailkatu da. Ekintzaile talde hori aukeratzeaz arduratzen den epaimahaia lehen mailako inbertsore eta enpresa adituez osatutako talde batek osatzen du.



Pau Pavón oso pozik agertu da bere aitortzarekin.

## Alumni

### Elikagaien fisika

NURIA DEVOSEK, FISIKAN GRADUATU ONDOREN, GASTRONOMIA ETA SUKALDARITZA ARTEETAKO GRADUA ESKURATU ZUEN, BERE BI GRINEN ARTEAN ZUBIAK EZARTZEKO HELBURUAREKIN: ZIENTZIA ETA GASTRONOMIA. GAUR EGUN PURATOS ENPRESAKO I+G DEPARTAMENDUAN EGITEN DU LAN.



Nuria Devos gastronomiako sektore profesionalean kokatu da.

### Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea

Nuria Devos Basque Culinary Center-eko Gastronomía eta Sukaldaritza Arteetako Graduak irakaslea da. Aita belgikarra eta ama espainiarra ditu, Madrilen jaio zen duela 26 urte, eta okindegiko zale amorratu gisa definitzen du bere burua.

**Zergatik erabaki zenuen Gastronomía eta Sukaldaritza Arteen Gradua ikastea?** Zientzia eta gastronomía beti izan dira erakarri nauten bi arlo. Horregatik, Fisikako graduak asinuen, baina amaitutakoan konturatu nintzen nire alderdi sortzaileen alantzea falta zitzaidala eta nire pasioa ez zela Fisika, Sukaldaritza baizik. Horregatik, Gastronomía eta Sukaldaritza Arteen Gradua aurkitu nuenean jakin nuen hori izango zela nire hurrengo urratsa, sukaldaritza baina unibertsitate mailan. Osagaiei buruz ikastea, baina baita ekonomiari, zientziari, marketinari edo psikologiari buruz ere.

**Gainera, zure Gradu Amaierako Lanean zure bi pasioak bateragarri egiteko aukera izan zenuen...** Gradua hasi nuenetik nahiko argi

neukan nire Gradu Amaierako Lanean sukaldaritzari buruz hitz egin nahi nuela, baina baita zientziari buruz ere. Horregatik, hirugarrenean Garapen eta Elikagaien Teknologiaren espezializazioa aukeratu nuen; eta ondoren, nire gradu amaierako lana entzimekin egindako gastronomía aplikazioen garapenean zentratzea erabaki nuen.

**Eta espezializazio horrek lagundu al dizu Puratos enpresan gaur egun egiten duzun lanean?** Jakina, hautaketa-prozesuan posizionatzeko eta nire eguneroko jardunean lortutako esperientziarako balio izan zidan. Gaur egun koipean I+Gko departamentuan nago, produktu berri bat ateratzeko berrikuntza-proiektu bat aurrera eramaten, eta prototipoak, laborategiko analisiak edo bilaketa bibliografikoa garatzeko proba asko egiten ditut. Interesgarria da, beste sail batzuekin harreman estuan nagoelako, eta horrek are gehiago ikasteko aukera ematen dit. Oro har, uste dut Graduak ikasleak nahiko prestatuta ateratzen garela bertatik, eta, egia esan, ez dut zailtasun handirik izan lan-ingurunera egokitzeko.

## Unibertsitateko txapelketak; betiko eredura bueltan!

COVID-19AREN PANDEMIAK KIROL LEHIAKETAK ANTOLATZEKO MODUAN ERAGINA IZAN DU, ETA EGOKITZEA POSITIBOA IZAN ARREN OHIKO EREDURA ITZULI DIRA.



XXI. Euskadiko Unibertsitate txapelketa berezia Bilbon.

**Kirola** | Azken urteotan bizitako egoera lazgarriak unibertsitate kirolean ere pisu izugarria izan du, eta ondorioz, barne nahiz nazioarte mailan antolatzen diren txapelketek aldaketak jasan dituzte.

XXI. Euskadiko Unibertsitate txapelketa berezia Bilboko AS Fabrikeraikinean ospatu zen eta bertan, banakako hiru modalitatetan (arrauna, bizikleta eta korrika) ikasleek erlojuaren aurka beren indarrak neurtu zituzten. Ezohiko edizio honek parte-hartzaileen eta unibertsitateen erantzun ezin hobea izan arren (60 ikasle inguruk hartu zuten parte), betidanik ezagutu dugun txapelketa eredura itzultzea guztiz onuragarria izan da denontzat.

### Emitza positiboak

2021-2022 ikasturtean ikasleek kirol disziplina anitzetan ohiko txapelketetako ibilbidea ezagutzeko beta izan dute. Prozesua fakultate bakoitzeko barne txapelketekin hasten da eta irabazleak Euskadi zein Espainiako txapelketan lehiatzen dira. Aurten, esaterako, talde kirolei dagokienez, Goi Eskola Politeknikoa, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea eta Enpresagintza ordezkatzen dituen boleiboleko ikasle talde batek, fakultateko eta Euskadiko txapelketan gailendu ondoren, Los Alcaceresen (Murtzia) Espainia mailan nor baino nor gehiago den ikusteko sailkapena eskuratu zuten. Bestalde, banakako kiroltan ere, kirol-maila bikaintasunera eramane nahi duen kirolari andanak ordezkatu du Mondragon Unibertsitatea, besteak beste, igeriketan, judon, golfetan eta taekwondon. Banaka lehiatzeko txartela lortzeko aurrez eskatzen den gutxieneko marka egiaztatzen da. Esan gabe doa, beraz, Mondragon Unibertsitateko ikasle horiek beraien kirol errendimendua beste unibertsitate batzuetako ikasleez alderatzeaz gain, esperientzia paregabea bizi izan dutela.

### Lehiaketetatik harago

Unibertsitate mailan antolatzen diren lehiaketez gain, unibertsitate kirolak beste zenbait egitasmo jasotzen ditu bere baitan. Jarduera fisikoa modu osasuntsuan egiteko irteera eta ikastaroak, fakultate jaietako ekintzak, aste tematikoak, kirol ikuskizun eta jantziak, entrenatzaile aholkularitza, bizikleta, instalakuntza eta material mailegua eta beste hainbat egitasmo antolatzen ditu. Ez galdu zure aukera eta zatoz parte hartzera!

## Arizmendiarietari aitortza

BILBAO AS FABRIK CAMPUSAREN SARRERA KOKATU DA KOOPERATIBISMOAREN SORTZAILEARI ESKAINITAKO ESKULTURA BERRIA



Eskulturaren inaugurazio ekitaldia.

**Mondragon Unibertsitatea** | Jose Maria Arizmendiarietaren eskultura berri bat jarri da Bilbao AS Fabrik campusaren sarreran. Mugimendu kooperatibistaren sortzaileari eskainitako aitortza berri hau Mondragon Unibertsitatearen sorreraren 25garren urteurrenaren baitan testuinguratzen da. Artelana maiatzean aurkeztu zen, eta Juan Mari Aburto Bilboko alkateak eta Mikel Álvarez Mondragon Unibertsitateko presidentek inauguratu zuten ofizialki.

### Artelan bereizgarria

Estudios Dureroren Arte Laborategiak diseinatu du 1,5 metro zabal, 3 metro altu eta 1,40 metro sakon duen eskultura, eta hustuketa eta soldadura teknikak erabili dira hau osatzen duten 20 milimetroko burdinezko plakak lantzeko.

Artelanak Jose Maria Arizmendiarietaren irudi oso esanguratsu bat erakusten du, bera bizikletan ibiltzen, Arrasatetik mugitzeko zuen modua gogora ekarriz.

## Arizmendiarietaren

### TXOKOA

## Hazia, ametsak eraikitzen

GONTZAL MENDIBIL ETA EASO ABESBATZAK ELKARLANEAN SORTU DUTE JOSE MARIA ARIZMENDIARIETAREN BIZITZAN OINARRITUTAKO MUSIKALA

*Hazia* musikala Jose Maria Arizmendiarietari MONDRAGONeko eredu kooperatiboaren bultzatzaile izan zenaren irudikapen artistikoa da. «Ametsak eraikitzen» lelopean eraturako ekimenak Arizmendiarietaren aldarrikapenetako bat hartzen du aintzat; beti aurrera!

Arizmendiarietaren espiritua oinarri hartuta musikalak bere bizitza eta bere jardunak emandakoa ikusarazi nahi du. Horretarako, bere bizimoduan izandako gertaera eta egoera errealak

oinarri hartuta, gure herriaren garapena gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen da.



Hazia musikalaren kartel ofiziala.

## Unibertsitate masterrak

### GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK KURTSOAK

- ▶ **MÁSTER EN CIBERSEGURIDAD**  
HERNANI (ORONA-IDEO), Octubre
- ▶ **MÁSTER EN EMPRENDIMIENTO  
TECNOLÓGICO PARA LA SILVER ECONOMY**  
URDULIZ, Octubre
- ▶ **MÁSTER EN INTELIGENCIA ARTIFICIAL  
PARA PROFESIONALES DEL SECTOR  
SALUD Y SILVER ECONOMY**  
URDULIZ, Octubre
- ▶ **MÁSTER EN FABRICACIÓN ADITIVA  
INDUSTRIAL** ORDIZIA, Septiembre
- ▶ **MÁSTER INTERUNIVERSITARIO EN  
TECNOLOGÍAS DE HIDRÓGENO**  
ONLINE, Octubre
- ▶ **MÁSTER PROFESIONAL EN MOVILIDAD  
ELÉCTRICA Y ALMACENAMIENTO DE  
ENERGÍA** ONLINE, Enero

### Cursos expertos

- ▶ **CURSO EXPERTO UNIVERSITARIO EN  
FABRICACIÓN ADITIVA EN METALES**  
ARRASATE-MONDRAGÓN,  
Septiembre
- ▶ **CURSO EXPERTO UNIVERSITARIO EN  
FABRICACIÓN ADITIVA EN PLÁSTICOS Y  
COMPOSITOS**  
ARRASATE-MONDRAGÓN,  
Septiembre,
- ▶ **CURSO EXPERTO UNIVERSITARIO EN  
GESTIÓN DE PROYECTOS**  
HERNANI (ORONA-IDEO), Octubre
- ▶ **CURSO EXPERTO UNIVERSITARIO EN  
DATA SCIENCE, DESDE LA INDUSTRIA,  
HASTA LA SILVER ECONOMY**  
URDULIZ, Enero
- ▶ **CURSO EXPERTO UNIVERSITARIO EN  
BUSINESS INTELLIGENCE PARA  
PROFESIONALES DEL SECTOR SALUD Y  
SILVER ECONOMY** URDULIZ, Octubre
- ▶ **CURSO EXPERTO UNIVERSITARIO EN  
GESTIÓN DE PROYECTOS**  
BILBAO, Marzo

## ENPRESAGINTZA

### Formación para Profesionales:

- ▶ **MBA EXECUTIVE:** Octubre 2022
- ▶ **EXPERTO EN PERSONAS, CULTURA Y  
TALENTO PARA EL FUTURO DEL  
TRABAJO** Enero 2023
- ▶ **MÁSTER EN COACHING** Febrero 2023
- ▶ **DIPLOMA DE ESPECIALIZACIÓN EN  
LIDERAZGO** Febrero 2023
- ▶ **EXPERTO EN LIDERAZGO Y TRABAJO EN  
EQUIPO** Febrero 2023

## BASQUE CULINARY CENTER

- ▶ **GRADO EN GASTRONOMÍA Y ARTES  
CULINARIAS** Septiembre 2022
- ▶ **MÁSTER EN FORMACIÓN DEL  
PROFESORADO EN GASTRONOMÍA**  
Septiembre 2022
- ▶ **MÁSTER EN COMUNICACIÓN Y  
PERIODISMO GASTRONÓMICO** / Octubre  
2022
- ▶ **MÁSTER EN PASTELERÍA DE  
RESTAURANTE Y COCINA DULCE** /  
Octubre 2022
- ▶ **CIBERSEGURIDAD. CONCIENCIACIÓN Y  
PREVENCIÓN PARA TODOS LOS  
PÚBLICOS** Octubre 2022
- ▶ **MÁSTER EN COCINA: TÉCNICA,  
PRODUCTO Y CREATIVIDAD** Octubre  
2022
- ▶ **MÁSTER EN CIENCIAS  
GASTRONÓMICAS** Octubre 2022
- ▶ **MÁSTER EN GESTIÓN Y DISEÑO DE  
EXPERIENCIAS DE TURISMO  
GASTRONÓMICO** Noviembre 2022
- ▶ **MÁSTER EN SUMILLERÍA Y MARKETING  
DEL VINO** Enero 2023
- ▶ **MÁSTER EN DIRECCIÓN DE F&B/**  
Enero 2023
- ▶ **MÁSTER EN PERFECCIONAMIENTO EN  
COCINA** Enero 2023

## Programa ejecutivo en dirección de f&b:

- ▶ **CURSO DE ESPECIALIZACIÓN EN  
TÉCNICAS CULINARIAS Y CREATIVIDAD  
DESDE LA HUERTA:** Septiembre 2022
- ▶ **CURSO EXPERTO EN BARTENDER Y  
COCTELERÍA MODERNA** / Octubre 2022
- ▶ **CURSO DE ESPECIALIZACIÓN EN  
PERFECCIONAMIENTO DE TÉCNICAS  
CULINARIAS** / Octubre 2022
- ▶ **CURSO EXPERTO EN DIRECCIÓN DE SALA  
Y ATENCIÓN AL CLIENTE** / Febrero 2023
- ▶ **CURSO DE ESPECIALIZACIÓN EN  
TÉCNICAS CULINARIAS DE VANGUARDIA**  
Mayo 2023
- ▶ **CURSO DE ESPECIALIZACIÓN EN BASES  
Y TÉCNICAS DE PASTELERÍA ENFOCADAS  
A LA COCINA DULCE:** / Mayo 2023



# ZURETZAT EGINA. PLANETAREN TZAT EGINA.

Eskatu zure LABORAL Kutxa gazte-txartela, % 99 birziklatutako materialez egina.



- 26 urtez beherakoentzako zordunketa-txartela, jaulkipen- eta mantentze-komisiorik gabe.
- Txartel pertsonalizagarria: Emaiozu zure estiloa txartelari, gehien gustatzen zaizun irudiarekin. **300 baino gehiago** dituzu aukeran.
- LABORAL Kutxak **ez du komisiorik kobratuko** atzerriko kutxazainetan, hilean zordunketa bidez dirua ateratzen den lehen aldian. Kutxazainaren jabe den erakundeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).
- Zure mugikorrarekin ordaindu ahal izango duzu, txartela **LK Payri, Google Payri, Apple Payri** edo **Garmin Payri** lotzen badiozu.

Abantaila guztiak ezagutzeko, informa zaitetz hemen: [laboralkutxa.com/eu/gazteak](https://laboralkutxa.com/eu/gazteak)

Deskargatu App-ak



Banca Online LK Pay

